



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 5a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Nafarroak arreta mediko pertsonalizatuaren eta prezisiozkoaren arloan erreferente izatea lor dezan datozen hilabeteetan landuko diren lan-ildoei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, itunpeko hezkuntzako irakasleen sektorearekin 2017an sinatutako akordioari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratzeko espedientearen egoerari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Belateko tunelen bikoizketa finantzatzeko moduari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, aurreko gobernuak onetsitako murrizketa fiskalak lehengoratzeko aukerari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako sendagileen kolektiboarekiko gatazkari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Rozalejoko Markesaren eraikinaren okupazio ilegalari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren berritasunei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, apustu-establezimendu, joko-areto eta bingo-establezimenduetarako lizentziei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Imotz, Basaburu, Irurtzun eta Arakilgo udalek “Ederbidea” mugaz gaindiko proiektua dela-eta egin dituzten ekarpenei Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, oraintsu deitu den 2019ko lan-eskaintza publikoan eskainitako lanpostuei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren 2020-2024 bosturtekoaren oinarri-urtea gaurko-tzeari begira aurreikusitako epe eta jarduketei buruzkoa. Maria Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak foru erkidegoaren diru-kutxari urtero ekarriko dion gainkostuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, nafar herritar guztien hizkuntz eskubideak ziurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako herritarren hizkuntza-eskubideei buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Herritarrekiko Harremanetarako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken aste hauetan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak hainbat errekurtsori buruz emandako ebazpenek eztabaida zabala eragin dute arlo politiko, sindikal eta sozialetan, bai eta hedabideetan ere, Nafarroako erakunde publikoek, Nafarroako herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, jarraitu beharreko hizkuntza-politikaren inguruko legediari buruz.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 216/2019, 217/2019 eta 218/2019 epaiek babesa

eman diote Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren zatirik handienari. Epai horiek bidea libre uzten diete, esate baterako, administrazioaren barruan hizkuntza-plangintza ezartzeari, dekretuak proposatu bezala, eta Administrazioaren barruan herritarrei arreta emateko zirkuitu elebidunak abian jartzeari, aginduzko izaera duten hizkuntza eskakizunak ezarrita. Foru dekretuaren funtsezko beste atal batzuk, herritar guztiei zuzendutako zerbitzuen seinaleztapen elebiduna orokortzeari, edo eremu mistoan, eremu ez-euskaldunean eta Administrazioaren “zerbitzu zentral” deitutakoetan euskara merezimendu gisa orokorrean baloratzeari buruzkoak, baliogabetu egin dira, eta, hartara, legegilea jarri dute alderdi horiek erregulatuko dituzten irizpideak argitzeko erronkaren eta betebeharraren aurrean.

Era berean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 254/2019 epaiak, zeina Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu zuen erabaki bati buruzkoa baita, abalatu du Administrazioak aginduzko eskakizun elebiduna ezar diezaiela lanpostu publikoei. Aipatutako epaiaren zioetan agertzen den bezala, Gobernuak eskakizun hori esleitu zien lanpostuak behar beste justifikatuta zeuden txosten teknikoekin, eta ez zegoen lanpostu elebidunen zuzkidura desproporzionatu edo justifikazio gabekorik.

Urte askotan Nafarroako administrazio publikoek, oposizio-lehiaketetan eta lekualdatze-lehiaketetan euskararen ezagutza sistematikoki baztertu dutela erakusten digun errealitate baten aurrean, Geroa Bain uste dugu deialdi publiko horiek Nafarroako egungo errealitate soziolinguistikoari egokitu behar zaizkiola. VI. Inkesta Sozio-

linguistikoak, 2016. urtekoak, erakusten digu herritarren % 13 euskaldun aktiboa dela. Portzentaje hori bi halako bilakatuko da, 16 eta 24 urte arteko adin-tartea kontuan hartzen badugu; horretaz gainera, Nafarroako biztanleriaren % 10 euskaldun pasiboa dela jotzen da. Horren aurrean, 2015ean, Administrazioaren lanpostuen % 0,9 baizik ez zen elebiduna, ehuneko nabarmen eskasa. Ospitale-gune osoan, non ia 6.000 langile publiko baitaude, eskakizun hori zuen lanpostu bakarra zegoen.

Nafarroako gizarteak azken hiru hamarkadetan izan duen aldaketa soziolinguistiko handia ez da behar bezainbeste kontuan hartu legedian, eta oraindik ere denborak zaharkituta dagoela erakutsi duen zonifikazioari eusten dio. Hala eta guztiz ere, ezin dugu alde batera utzi legediak berak argiro aldeztu duela euskararen ezagutza era erabilera Nafarroako lurralde osoan sustatzea. Euskarari buruzko Legeak, 2. artikuluan, ezartzen du euskara Nafarroako hizkuntza berekia dela. Legearen helburu orokorren artean honako hauek ezartzen dira: “herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea” eta “Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz”. Halaber, honako hau ezartzen da: “Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealtate soziolinguistikoaren arabera”. Azkenik, 6. artikulua bitartez, aitortzen da “herritar guztiek Administrazio Publikoekiko harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela, ondorengo kapituluetan ezarritako eran”.

Geroa Bain ezinbestekotzat jotzen dugu gure erkidegoko hizkuntza politikari buruzko adostasun sozial eta politiko zabal bat erdiestea, hura borroka partidariotik kanpo utziko duena eta gure erki-

degoan bizikidetasunerantz joateko positiboan lan egitea bideratuko duena, Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak 2019-2023 aldirako sinatutako Programa Akordioak ezartzen duen moduan.

Hori dela eta, aipatu berri ditugun helburuetan aurrera egiteko asmoz, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du Euskarari buruzko Legeak jasotzen dituen aukera guztiak gara ditzan, halako moduz non, egungo errealtate soziolinguistikoa kontuan hartuta, gai izenen baita Nafarroako herritar guztien hizkuntza-eskubideei erantzuteko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 216/2019, 217/2019, 218/2019 eta 254/2019 epaiek zedarritutako bidetik jarraitzeko, hizkuntza plangintzari dagokionez, Nafarroako herritarrei arreta elebiduna bermatzeko, Euskarari buruzko Legeak ezarri bezala.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du araudi bat onetsi eta gara dezan, zeinak Nafarroa osoan bermatuko baitu merezimenduen balorazio zuzen eta proportzionatua, euskararen ezagutzari begira; horrek ekarriko du oro har haren ezagutza ez dela gutxiago baloratuko Europako erkidegoko beste hizkuntza batzuen ezagutza baino.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du bere irudian, seinaleetan eta bere komunikazio publikoetan gure erkidegoaren errealtate elebiduna isla dezan, bereziki Nafarroako herritar guztiei zuzendutako Administrazioko zerbitzuetan.

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroak arreta mediko pertsonalizuaren eta prezisiozkoaren arloan erreferente izatea lor dezan datozen hilabeteetan landuko diren lan-ildoei buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak arreta mediko pertsonalizuaren eta prezisiozkoaren arloan erreferente izatea lor dezan datozen hilabeteetan landuko diren lan-ildoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garapen Ekonomikorako kontseilariak berak eskatuta irailaren 18an egindako agerraldian iragarri zen, besteak beste, Medikuntza Pertsonalizatuko Estrategia bultzatuko dela, halako moduan non erreferente bihurtuko baikara estatuan.

Helburu hori bera berretsi zen Nafarroak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniak oraintsu egin duten Bio-osasuna Industriaren V. Topaketan.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Hurrengo hilabeteotan zer lan-ildo jorratuko dira Nafarroak arreta mediko pertsonalizuaren eta prezisiozkoaren arloan erreferente izatea lor dezan?

Iruñean, 2019ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, itunpeko hezkuntzako irakasleen sektorearekin 2017an sinatutako akordioari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, itunpeko hezkuntzako irakasleen sektorearekin 2017an sinatutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregulamentuko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, ahoz erantzun dakion:

Itunpeko irakaskuntzako irakasleen sektoreak 2017an sinatutako akordioa, zeina indarrean egon baita 2017ko iralaren 1etik 2019ko abuztuaren

31ra bitarte, bukatu egin da, bertan adostutako zenbait puntu bete gabe bukatu ere. Horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- % 0,25eko igoera osagarria 2019ko uztailetik, irakaskuntza publikoko irakasleekin egin den bezala.

- 2012an pairatutako soldata-murrizketak leheneratzea (% 2,5 irakasleen kasuan, eta % 2 administrazio eta zerbitzuetako langileenean).

- Irakasleen bajak lehen baja-egunetik ordeztuta, 10 egunetik gorako bajen kasuan.

Egoera horrek Nafarroako irakasleen ia % 40ri eragiten dionez (3.400 irakasle inguru), parlamentari naizen honek honako hau galdetzen diot Hezkuntzako kontseilariari:

– Hezkuntza Departamentuak zer epe eta neurri darabil gogoan akordio hori betetzeko eta itunpeko irakaskuntzako langileen ordezkarietako negoziatio kolektiborako zer egutegi darabil gogoan? Izan ere, une honetan iraungita daude itunpeko irakaskuntzako sektorean hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta hobekuntza sozialak ezartzeko 2013ko uztailaren 26ko akordioaren luzapenak.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratzeko espedientearen egoerari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur inte-

reseko ondasun deklaratzeko espedientearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtebete luze igaro da Kulturako zuzendari nagusiaren 2019ko apirilaren 8ko Ebazpenaren

bidez Nafarroako Jota Nafarroako ondare immaterialeko kultur intereseko ondasun deklaratzeko espedientea abiarazi zenetik. Zertan da Navarjota Elkarrekin NUPeko Ondare Immateralaren Kate-drekin lankidetzan jorratutako espediente hori?

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Zizur Nagusiko irteeran, Iruñerako norabidean, gertatzen diren zirkulazio arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zizur Nagusiko irteeran –Iruñeko norabidean, A-12aren eta A-15aren arteko semaforo-lotunean– trafiko-arazoa gertatzen da goizero-goizero. Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer aurreikuspen darabil gogoan arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak uztailaren 5ean emandako 82/2016 Foru Aginduak baliorik gabe uzten ditu martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru aginduak. Aipatu foru aginduek ikasliburuen doakotasunerako programatik kanpo uzten zituzten argitalpen batzuk, Foru Komunitatearen hezkuntza-curriculum eta errealitate instituzionala ez errespetatzeagatik.

Foru agindu hori oraindik ere indarrean dagoenez, parlamentari naizen honek honako hau galdetzen dut:

Gobernu honek ba al du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua deuseztatzeko asmorik? Izan ere, foru agindu horrek ahalbidetzen du Nafarroako hezkuntza sistemari erabiltzea hainbat etaparako curriculum bete ez eta Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuak.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Belateko tunelen bikoizketa finantzatzeko moduari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Belateko tunelen bikoizketa finantzatzeko moduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Belateko tunelak 2025erako bikoiztuko direla iragarri baituzue, nola finantzatzeko da azpiegitura horrek eraginen duen 100 milioi euroko kostua?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

roako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteartean, PSNk Lurralde Kohesiorako Batzordean duen eledunari entzun genion esaten PSNk ez duela hektarea-kopuru zehatz bat konprometitzen Nafarroako Ubidearen 2. fasean ureztatzeko.

Jakin badakizu euskal nazionalismoa Ubidearen aurka azaldu zela, eta Erriberarentzako konponbide bakarra zela gogoz kontra onartu zuenean auzitan jarri zuen Erriberara zenbat hektometro kubiko iritsi behar ziren.

PSNk beti aldeztu zuen 21.500 hektareako ureztaketa. Zeri zor zaio Erriberarako jarrera-aldaketa hori?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, aurreko gobernuak onetsitako murrizketa fiskalak lehengoratzeko aukerari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, aurreko gobernuak onetsitako murrizketa fiskalak lehengoratzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehenengo lau gobernuak onetsi zituen murrizketa fiskalak leheneratzeko aukerari buruzko inolako konpromisorik adierazi gabe jarraitzen duzula ikusita, aurreikusita al duzu zerga-igoerak finkatzea seme-alabak dauzkaten familiei, enpresei nahiz Espainiako gainerako lurraldeetiko desabantaila fiskal nabarmenean jarri zituzten bestelako herritar-kolektiboiei?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako sendagileen kolektiboarekiko gatazkari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako sendagileen kolektiboarekiko gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola konpondu nahi du Nafarroako sendagileen kolektiboarekiko gatazka?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Rozalejoko Markesaren eraikinaren okupazio ilegalari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Rozalejoko Markesaren eraikinaren okupazio ilegalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

los Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Rozalejoko Markesaren eraikinaren okupazio ilegalari buruzko epaia behin ezagututa, Gobernuak aurreikusita al dauka inolako ekimenik abiaraztea herritarrei argitze aldera Foruzaingoak zergatik ez zuen ezer egin justiziaren aitzinera arduradun bakar bat ere eramateko, eraikuntzaren okupazio publikotik urte eta erdi igaro eta gero?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Car-

Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren berritasunei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriaren berritasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreaki zuzendua, eta heldu den osteguneko, azaroaren 7ko Osoko Bilkuraren gaitzerrendan sar dadin eskatzen du.

Oinarrizko egituraren dekretuak 13 departamentu eta 40 zuzendaritza orokor eta erakunde autonomo jasotzen ditu, eta gaur, urriak 30, Nafarroako Gobernuak jakinarazi du Gobernuaren bilkuran onetsi dela oinarrizko egituraren dekretuko unitate ertainen –zerbitzuen eta atalen– antolamendua.

Zeintzuk dira egitura berriaren berrikuntzak, zeri erantzuten diote eta zein da aurreikusitako gastu-gehikuntza?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, apustu-establezimendu, joko-areto eta bingo-establezimenduetarako lizentziei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, apustu-establezimendu, joko-areto eta bingo-establezimenduetarako lizentziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentuak mozio bat onetsi du, Foru Komunitatean apustu-etxeen, joko-aretoen eta bingoen establezimendu berriak irekitzeko baime-nak emateko sei hilabeteko moratoria bat ezartzen duena. Gobernuak mozioa beteko duelako albistea ikusita, Podemos Ahal Dugun honako hau jakin nahi dugu:

Moratoria baino lehen erregistratutako lizentzietatik zenbat geraraziko dira eta zertan dira gainerakoak?

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Imotz, Basaburu, Irurtzun eta Arakilgo udalek “Ederbidea” mugaz gaindiko proiektua dela-eta egin dituzten ekarpenei Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako galdera, Imotz, Basaburu, Irurtzun eta Arakilgo udalek “Ederbidea” mugaz gaindiko proiektua dela-eta egin dituzten ekarpenei Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Ederbidea mugaz gaindiko proiektuko Nafarroako Eurovel0-1 (Endarlatsa-Iruña eta Gipuzkoako muga-Irurtzun) tartearen udalez gaindiko proiektu sektorialean sartzen diren toki entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenari dagokionez, Imozko, Basaburuko, Irurtzungo eta Arakilgo udalek zenbait ekarpen egin zituzten 2017ko azaroaren 9an; zehazki, desjabetutako lursailen titulartasunari eta bosgarren klausulari –erabilera eta mantentze-lanak– buruzkoak.

Nafarroako Gobernuak noiz erantzunen die ekarpen horiei eta zein izanen da erantzuna?

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, jakitekoa ea zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea zer etxebizitza-aukera eskainiko zaizkien beren etxebizitzak utzi beharko dituzten Castejongo 38 familiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Orain dela gutxi jakin dugu, Castejongo Udala-ren eta prentsan agertutako informazioaren bidez,

Castejonen 38 familiak bizi duten arazoa; izan ere, orain dela 20 urte babes ofizialaren araubidean eraikitako pisuen bloke bateko higiezina utzi beharko omen dute beren alokairu-kontratuaren indarraldia bukatzen dela-eta, babesaren indarraldia ere bukatu baita.

Badakigu egoerari konponbide bat bilatzeko elkarlanean ari direla Castejongo Udala, ukitutako bizilagunak, Erriberako Hipotekak Ukitutakoen Plataforma eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua.

Azkenean ezin baldin bada ekidin pisua utzi behar izatea, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak aurreikusita al dauka 38 familia horientzako etxebizitza-aukerarik? Ba al daki ea gure erkidegoko beste herri batzuetan berehala artatu beharreko antzeko beste kasurik ote dagoen, halako moduan non aurretiaz jorra baitaitezke konponbideak aipatutakoaren moduko egoerak ekiditeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, oraintsu deitu den 2019ko lan-eskaintza publikoan eskainitako lanpostuei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, oraintsu deitu den 2019ko lan-eskaintza publikoan eskainitako lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak azaroaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer balorazio egiten duzu oraintsu deitu den 2019ko lan-eskaintza publikoan eskainitako lanpostuei buruz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 1ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzorric Goñi

Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren 2020-2024 bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeari begira aurreikusitako epe eta jarduketei buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren 2020-2024 bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeari begira aurreikusitako epe eta jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak azaroaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zer epe eta jarduketa darabil gogoan Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenaren 2020-2024 bosturtekoaren oinarri-urtea gaurkotzeari begira?

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak foru erkidegoaren diru-kutxari urtero ekarriko dion gainkostuari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren egitura berriak foru erkidegoaren diru-kutxari urtero ekarriko dion gainkostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren egitura berriak zer gainkostu ekarriko dio urtero foru erkidegoaren diru-kutxari?

Iruñean, 2019ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

